

**BAIGORRIKO BAXERAK.**—Zeramikaz arduratzen den barentzat bere garrantzia duen atsotitz bat bada Baigorri aldean, baxerak direnez medio. Oihenarten atsotitzetan agertzen da lehenik, baina guk gure zalantzak ditugu ondo jasoa ote denez.

Oihenarten *Atsotitzak eta neurtitzak* liburua Larresororen edizioa baizik ez dugu eskuetan, 1971an Donostian argitaratua eta uste dugu zuzen jasoa ekarriko duela 66. atsotitza:

*Baigorri baxera lurrez,  
nik haragei nuenean urrez.*

Jean Elissalde «Zerbitzari»-ren bilduman, *Atsotitz, Zuhur-hitz eta Erran-zahar* (1936) deritzaion hartan, 116. atsotitza bera dela dirudi, baiña zentzuz desberdina da:

*Baigorri baxera urrez,  
ni harat orduko lurrez.*

Honako era edo esan nahi hau ordean gipuzkoarren Urrutiko intxaurrak... bezalako da.

Oihenarten, lurrezko zena urrez bihurtzen du, eta Zerbitzarienean alderantziz, urrezko zena lurrez. Beraz, bada diferentziarik.

*Herria* astekariaren zuzendari den Emile Larre baigorriarrai beste honako hauek jaso nizkion, Baigorri inguruetakoko populuak erraten denez:

*Baigorri baxerak urrez,  
harat joan eta lurrez.*

Baina, baigorritarrek aldiz beste honako hau erabiltzen omen dute:

*Auzoan baxerak urrez,  
harat joan eta lurrez.*

Zerbitzariren bildumakoaren zentzu berekoak dira horiek, atsoitz bezala, baina pluralez erabiltze horrek adibide zalan-  
tzagarri bat eskaintzen digu, baxera soilean nekezagoa deri-  
tzaguna, baxerakoa urrea beharrez lurra izatea edo baxerak  
heurak urrezkoak edo lurrezkoak. Zeramika zaleontzat hala ba-  
litz hobe, zeramikagileen aztarna izan deitekeanez, baina zori-  
txarrez bestera dela dirudi: ontzikoa eta ez ontzia.

\* \* \*